

Hitzaurrea

Hizkuntzak inguruko beste hizkuntzekin harremanetan bizi dira ezinbestez, elkarri eraginez. Hiztunok, alabaina, hizkuntzen eta kultura desberdinen arteko hurbilketa zuzenaren beharra dugu, eta ez hirugarren hizkuntza batena. Hizkuntza elkarren berri jakiteko eta nork bere izaerari eusteko bidea baita.

Ilido berean, hutsune bat bete nahi izan du esku artean duzun hiztegi honek, euskararen eta alemanaren arteko zubia osatuz.

Alemana, ehun bat milioi lagunengatik sor-mintzaira izateaz gain, oso hizkuntza garrantzitsua da gaur egun, bai kultura eta zientzien arloan eta baita ekonomian eta politikan ere. Alemanez egiten diren ikerketak goi-mai-

lakoak direnez, edozein espezialistak jo behar izaten du alemanez argitaratutako bibliografiara, lanean aurrera egin nahi badu.

Alemanaren osasun onaz jabetzeko, munduan argitaratzen diren hamar liburutatik bat alemanez idatzia dagoela gogoratu besterik ez dago. Alemana da itzulpen gehien egiten den hizkuntza eta beste hizkuntzetara gehien itzultzen dena, ingelesaren eta frantsesaren atzetik. Euskaldunok badugu zer ikasi XVII. mendean batuaren bideari lotu zizaion hizkuntza ez erromaniko honetatik.

Alemaniar hizkuntzalariak aspaldi hasi ziren euskaldunon hizkuntzaz arduratzen. Euskaldunon artean ere ez dira gutxi izan alemana ikasteari ekin diotenak, edota historian zehar Alemaniara ikastera nahiz lan egitera joan direnak.

Gaur anitz dira gure artean urtero hizkuntza eskoletan alemana ikasten dutenak, alemana ikasteko nahia, baita beharra ere, hazten ari baita.

Euskal Herriaren eta alemanez egiten den lurraldeen arteko harremanak estuagoak izango dira etorkizunean, zalantzarik gabe. Horrexegatik da gero eta handiagoa elkarrrekiko lankidetzeta suspertzeko ahaleginei eskaintzen zaien arreta.

Hari honetara, euskara-alemana/alemana-euskara hiztegi honek baliabide izan nahi luke alemana egune-

roko bizitzan erabili behar duten euskaldunentzat, bai itzultzaile bai mota guztietako ikasleentzat ere, hein berean aleman hiztunari zuzentzen zaiolarik.

Hiztegiaren egiturari dagokionez, azkenik, erraz erabiltzen den tresna egokia eskaintzea izan dugu helburu. Hiztegia, gaurko hiztunak maizen erabiltzen duen oinarritzko hitz-ondareaz osatua dago, hitz teknikoak barne. Eta hitzak nola erabili behar diren erakusteko, azalpenak dakartza itzulpenaren aurretik, bai eta jakintza-arloaren nahiz gramatika-kategoriaren aipamenak ere. Adiera desberdinen artean bereizten eta aukeratzen laguntzeko dira, bestalde, emandako adibide eta esapide ugariak.

Erabiltzaileak du orain hitza. Euskararen eta alemanaren arteko harremanetan egin dugun urrats berri hau beste hamaika urratsen abiapuntua izan dadila.